

**ELKARRI MOKOKA:** Mikel Hernandorena eta Andrea Etxarri **KUXKUXEAN:** Urtarrileko zorion agurrak **ERREPORTAJETXOA:** Mailope lasterka **ELKARRIZKETA:** Ane Vitoria, odontopediatra

Ikusi  
hemen  
Mailope



## Mailope belaunaldi berrien esku



Alfredo Dufur (Lekunberri)  
Bertso berriak  
Mailoperi jarriak



25 urte hauetan hamaika oztopo gairitu behar izan ditu Mailope Aldizkariak. Baina herritarren babesari esker aurrera atera da eta atzetik datozen belaunaldi berriekin ziurtaturik du etorkizuna.



# MAILOPETxiki

Joan den hilean elur panpina apaintzearen erronka luzatu genizuen eta lan dotoreak jaso ditugu. Horra hor Eguberri hauetan jaso ditugun marrazki eta elur panpinak.

Parte hartzaileen artean zozketa egin ondoren, Beteluko Ane Buldainek eta Lekunberriko Naia Agirrek Denonartean Argital-  
etxearen liburu bana jasoko dute opari. Zorionak!



Joanes Goikoetxea



Naia Agirre



Ane Malkorra



Ixone Merino



Ane Buldain

Sariak Denonartean argitaletxearen eskutik:



Eta hurrengo alerako beste liburu bat ere badugu zozketatzeko beraz, horra hor hurrengo proposamena:

Bidaliezaguzu zure herriko edo inguruko inauterietan iaz edo aurreko urteetan ateratako argazkia eta kontu iezaguzu: Nola ospatzen dituzue inauteriak?

**Antsoenea**  
ARIDU LATAKAREN ESNE GORDINEZ  
EGINDAKO GAZTA OINDUA  
TF. 948 51 34 68 . antsoenagaztak@gmail.com . Urtegi

**Atabal**  
okindogia  
Era askotako  
ogiak eta gozoak  
Etxez etxe  
banatuko dugu  
Ogia enkargatzeko...  
**948513151**

**MAITE**  
harategia

**BERTAKO HARAGIA**  
Txistorra, txorizoa,  
salxitxak,  
sukaldaturako platerak.  
Etxera eramateko  
zerbiltua ere eskeintzen  
dizugu.  
Antigua Kalea N°7  
31890 BETELU  
Telf: 948 51 30 88  
maiteharategia@hotmail.com

- 04> Iritzia
- 08> Luze: Koldo Nuñez-Betelu
- 09> Lauburua: kaixomaitia.eus
- 09> Kuxkuxean: Urtarrileko zorion agurrak



## 10 > Xabier Abasolo

Abian komunikazio enpresak 2012an egindako lehiaketan Lekunberri eta Larraunen emititzeko irratilizentzia eskuratu zuen eta orain antena jartzeko izapideak egiten dabilta Lekunberriko Udalarekin.

- 12> Batzarre



## 14 > Ane Vitoria

Ane Vitoria donostiarra Iortia Hertz Klinikako odontopediatra aholkularia izanen da. Otsailaren 19an, Lekunberriko Ibarberri eskolan hitzaldia eskainiko du.

- 20> Kultura: Olentzeroren etorrera
- 23> Kirola: Oier Sanjurjoren aldeko taldea



## 24 > Pilotari ohiei omenaldia

Larraungo Pilota Elkartearen aurtengo materialaren eta pilota eskolako pilotarien aurkezpenarekin batera, Profesioaletan aritutako 24 pilotari omendu zituzten joan den hilean Lekunberri eta Larraungoak denak.

- 30> Edurne Erro
- 31> Kontu txikiak

Mailope doan banatzen da honako herrietan:

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiuro, Oderitz, Uitz eta Uztegi.

Argitaratzen du: Mailope Kultur Elkartea.

L.G.: NA 719/93

Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik.

issuu.com/mailopealdizkaria

**ERREDAKZIOA:** Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandorena, Ainhoa Iriarte, Itziar Luri, Arantxa Mikeo, Alfredo Dufur, Nerea Urbizu eta Andoni Tolosa.

**ARGAZKIAK:** Labrit, Ane Vitoria, Kalaxka, Oskar Estanga, Joxe Mari Zabaleta, Nerea Urbizu, Euskara Zerbitzua, Agurtzane Altuna, Maria Sotil eta Juan Antonio Garaikoetxea.

**PUBLIZITATEA:** Labrit Multimedia - 948 210 103 - mailope@labrit.net.

**MAKETAZIOA:** Mikel Azpilikueta.

**TIRADA:** 1.600 ale.



## JESUS JAIMERENA, SAGARRONDO EMANKORRA

*Pena handiarekin eman genion azken agurra Jesus Jaimerena jaunari (Don Jesusi), abenduaren 12an, Lekunberriko parrokian.*

*Nabarmena da Don Jesusek egindako lan ikaragarri handia, bere bizitza osoan zehar, eta bera hurbiletik ezagutzeko zorte ona izan dugun guztiok, uste dut zalantzarik gabe, denok edo gehienok behintzat, aitortuko dugula bere aspektu positibo hori: beti lanean, besteen alde, jendearen onerako, interes ekonomikorik gabe, dohainik, kobratu gabe. Eta, gainera, apaltasunez, bere burua nabarmendu gabe; beti umilki.*

*Horrek burura ekarri dit, behin batean, On Joxe Miel Barandiarani bere amak esandakoa, semea artean gaztetxoa zela.*

*On Joxe Miel itzuli omen zen ikastetxetik etxera, oporrak pasatzera edo, eta gainera, nota eta kalifikazio on-onekin. Orduan, amak, ikusita arriskua egon zitekeela semea harrotu zedin ateratako nota on haiengatik, badaezpada ere, honako hauxe bota omen zion:*

*-Joxe Miel, ikusten al duk ongi gure etxeko sagarrondo hori?*

*-Bai.*

*Sagarrondo hura fruituz leporaino beteta omen zegoen urte hartan, alegia, sagarren pisu ikaragarriarengatik adarrak eta arbola bera ere makur-makur eginda omen zegoen. Hori horrela, amak hauxe esan omen zion:*

*-Bueno, ba, errepara iezaiok ongi bere itxura eta jarrerari. Hara, begira, hik ere zenbat eta fruitu gehiago eman, orduan eta apalagoa izan behar duk bizitza honetan.*

*Dirudienez, On Joxe Miel Barandiaranek ongi gogoan hartu zuen amaren ikasgai hura, bere bizitza osoan zehar, eta neronek esanen nuke, Don Jesusek ere beste horrenbeste egin duela bere bizitza osoan. Hona hemen Jaimerena jaunaren fruitu eta emaitzak: parrokian, komentuan, abesbatzan, solfeoan, txistuan, euskarari, latinean, armonionean, antzerkian, dantzetan, pilotan, itzulpenetan, eta abarrear.*

*Nik uste dut, Jesus Jaimerenaren sagarrondo emankor eta apa-laren itzal handiak, luzaro iraunen duela gure oroimen bizietan; hala beharko luke behintzat.*


*Besarkada bero, eskumuin eta goraintziak Don Jesusen senide, familiako, lagun eta ezagun guztiak.*

*Eta, bukatzeko, kontu bakar bat: Jesus Jaimerenak euskararen alde, ekintzez, hainbeste lan egin ondoren, iruditzen zait, hiletako mezan, homilia ere euskaraz ongi merezia eta irabazia zuela.*



Xanti Begiristain Madotz. (Auritz, 2015-12-13)

*Zure iritzia bidali nahi badiguzu idatzi mailope@labrit.net-era hilaren 20a baino lehen.*



**Hostal Betelu**  
<http://www.hostalbetelu.com>  
Eguneko menua,  
karta, plater  
konbinatuak eta pizza  
goxoak  
Etorri eta  
on egin!  
Erreserbak:  
948513026  
676145637

**BETELU**  
**PNEUMATIKOAK**  
TAILER MUGIKORRA  
NEUMATIKO ALDAKETA  
ZULATZEEN KONPONKETA  
Vicente Iriarte  
**T. 646 474 166**  
[www.neumaticosbetelu.es](http://www.neumaticosbetelu.es)

**LARRAUN** GARABI ZERBITZUA 24 ORDUZ  
MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATE TAILERRA  
**Gruas y Talleres LARRAUN s.l.**  
Lekunberriko industriagunea,  
21. nabea  
31870 Lekunberri  
Nafarroa  
Mugikorra: 626 494 356  
Telefonoa: 948 507 229  
Faxa: 948 507 281  
[gtlarraun@gmail.com](mailto:gtlarraun@gmail.com)

## LEKUNBERRIKO ZABORTEGI ZAHARRA: NOIZKO KONPONBIDEA?

Urte luzez, Lekunberriko hiri hondakinak gaur egun Zabortege zaharra izenarekin ezagutzen dugun gunean bota ziren, Lekunberriko eta Etxarriko lurretan. Zabortegea erreka baten gainean eraiki zen iragazgaiztu gabe, ez behitik ezta azalean ere.

Beste garai batzuk ziren eta hondakinak gaika bildu eta tratatzeko sistemak ez ziren erabiltzen. Horrela, hondakin horien artean oso toxiko eta kutsagarriak diren hondakinak bota ziren, besteak beste hurrengoak: auto partikularren olioak, berun astunekin; autoen bateriak, beruna eta azidoekin; etxetresna elektrikoak, PCB, CFC's eta HCF's dauzkatenak; medikamentuak; zink, merkurioa, beruna, kadmio eta manganesoa dituzten pilak; merkurioa duten termometroak; merkurio, zink, beruna, nikel, kadmioa, eta manganeso dituzten lanpara fluoreszenteak.

Urteetara, Plazaola Natur Bidea berreskuratu zenean, zabortege gainean, jendearentzako atsedenleku eta jolasgune bat ireki zen. Itxurak itxura, 2013ko urtarrilean zabortegean luizi bat gertatu zen, erreka bidea itxiz. Momentuko arazoa konpontzeko, eroritakoaren zati bat hondeatzeko makina baten bitartez kendu eta zabortegearen goiko aldean utzi zen, Lekunberriko eta Etxarriko lurretan. Baina ibaiaren ibilbide luzea plastikoz bete zen.

3 urte ondoren egoera ez da aldatu. Hondakinek bertan jarraitzen dute eta erreka igotzen den bakoitzean plastikoak eramaten eta erreka bidean zehar zabaltzen ditu. Era berean eta zabortegea iragazgaiztu gabe dagoenez, euriarengatik sortzen diren lixibatuek aipatutako substantzia kutsakorrak (beruna, merkurioa, zinka, kadmioa, nikel eta abar) eramaten dituzte errekaraino eta lur azpiko uretaraino, hauek kutsatuz.

Era berean, edozeinek, baina areago umeak direnean, atsedenleku eta jolasgunean substantzia horiekin kontaktuan jartzen dira, bere osasuna arrisku bizioan jarriz.

Egoera honen aurrean, Kalaxkatik Udaletxera zuzendu gara gunea berreskuratu eta ingurumena eta pertsonen osasuna babesteko eskatuz.

Larraun, 2015eko abenduak 14  
Kalaxka (kalaxka@gmail.com)



## Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera  
Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)  
948 504 077 • 639 778 851 • aitziberalf@hotmail.com

## ETXEZ ETXEO EGUR SALMENTA

URTE OSOAN ZEHAR

EGURRA  
EXPRES

☎ 635 90 91 95

✉ promanburillo@gmail.com

Erbiti, Basaburua

Gure egurraren kalitatea eta prezioak ikusten dituzunean kea aterako diezu



# Bertso berriak

## Mailoperi jarriak

Alfredo Dufur (Lekunberri)



*Ate joka daukagu  
Durangoko azoka  
"ongi etorri" erranen  
gaurkoan bertsoka  
pasilloan barrena  
giroa borborka  
mende-erdia beteta  
aiaiaiaiiii  
luzea da soka.*

*Etorri eta joan da  
egin du agurra  
Azokan aurten ez da  
agertu elurra  
diru poltsari ederki  
emanda egurra  
abenduko aldapa  
aiaiaiaiiii  
ez dugu xamurra*

Ainhoari puntua: \_\_\_\_\_

Bardoak Larraunera  
zaizkigu etorri

Oinak: \_\_\_\_\_

irabazi, hazi, hasi, nahasi



Doinua: Txe eta zapata

- 6 -



### ETXEAN EKOIZTUTAKO ARDOA

Joan den abenduaren 17an, Euskara Batzordeak eta Larraungo AEK-k antolatuta, Asier Eleta lekunberriarrak ardoa etxean nola egiten duen azaldu zien Kantinara bertaratutakoei. Dozena bat lagunek ezagutu zituzten jarraitu beharreko pausoak eta ondoren Asierrek berak ekoiztutako ardoa dastatu zuten.



### EKOIKAS BULETINA


Larraungo Kalaxka Elkartek hilabetean behin argitaratuko duen eko-buletina aurkeztu berri du, EKOIKAS. Hilabete-kari horren helburua ekologia eta ingurumenaren inguruan sentsibilizatu eta kontzientziaztea da. Hilero lau proposamen egiten dizkiete herritarrei, salaketarako aukera emanez batzuetan eta hausnarketarako tartea eskainiz besteetan.



### NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOETAKO EUSKARA ZERBITZUEN IBILBIDEAREN ERAKUSKETATXOA.

Gure eskualdekoa 1989an sortu zen. Euskara zerbitzuek urte hauetan guztietan zehar izandako ibilbidea azaltzen duten bi panel daude ikusgai Mitxausenea Kultur Etxean.

## Hauteskundeetako emaitzak irakurriz



Mikel Hernandorena

Kaixo Andrea!!!! Zer moduz?? Lehenik eta behin, Eguberri On zuri eta Mai-lope irakurtzen duten irakurle guztiei. Gaurkoan, duela gutxi izan genituen abenduaren 20ko hauteskundeetara buruz idatziko dut. Izan ere, behingoagatik, gutxi bada ere, ohiko bipartidismoa apurtzeko zantzuak gertatzen hasi dira, Podemosen sarrerarekin, baina oraindik ere PP, PSOE hor ditugu eta Ciudadanosen sarrera ere bipartidismo horren bermea emateko tresna indartsua izan daiteke alderdi handikientzat. Euskal Herrian izan diren emaitzak ere gogoeta egiteko

“Jendeak orain arteko sistema politiko honi aski dela esan dio”

modukoak dira. E.H. Bilduk eta Geroa Baik ez dituzte esperotako emaitzak izan, Podemos sartu den indarrarengatik nik uste, eta EAJ izan da Podemosen gorakada hau nolabait eutsi duena. Lehenengo bi alderdien kasuan, Podemosek aipaturako erabakitze eskubideak Bilduren eta Geroa Bairen botoak bereganatzea eman diela uste dut. Poztekoa iruditzen zait, berez estatista den alderdi batek, estatuko lurraldez-lurraldekako eskubideak kontuan hartu eta bertako herritarrei beraien etorkizuna erabakitze eskubidea aitortzea. Horrela azaltzen da bakarrik Gipuzkoan, Bilduk indarra duen lurraldea, eta Araban Podemosek izan duen gorakada. Honekin batera, Katalunian ere Podemosen indarra argi eta garbi geratu da.

Aurrekoari jarraiki, estatu mailan izan diren lurraldez lurraldekako mapa hartuz gero, argi eta garbi geratu da Euskal Herrian nahiz Katalunian jendeak orain arteko sistema politiko honi aski dela esan diola. Kasualitatea edo ez, abertzaletasuna hain zabaldua den bi lurralde hauetan gauzak aldatzeko asmoa nabaria da, baina badirudi sistemako alderdi askori ez zaiela aukera hori ematea interesatzen. Orain ikusiko da nola geratzen diren gauzak hauteskundeen ostean, alderdien akordioaren artean, baina nik behintzat ez dut etorkizuna oso argi ikusten Andrea. Zuk zer diozu? Besarkada bat eta Urte Berri On!!!!



Andrea Etxarri

PP garaile aurtengo hauteskundeetan ere! Beren ideologia alde batera utziz, harrigarria iruditzen zait beren agintaldian izandako gora beheren ondoren oraindik ere hainbeste jenderen babesa izatea. Batetik, hain entzunak izan diren ustelkeria kasuak. Bestetik, legealdian zehar ateratako lege zaharkituak. Eta zer esanik ez alderdiko ordezkari nagusiaz, jendaurrean eztabaidatze- ra ausartzen ez dena. Harrigarriak ere PSOEek lortutako emaitza txukunak. Aldaketarako sinesgarritasun faltak egin diezaiokeen eragina uste baino apalagoa izan da. Podemos alderdiari dagokionez, herritarrek pairatutako in-

“Eragina uste baino apalagoa izan da”



justizien aurkako ahots bezala agerturik eta bere lider karismatikoak politikari emaniko ikuspegi berritzaileak, bozka kopuru esanguratsua lortu du. Ciudadanos, bere aldetik, Podemosen sarrera indartsuaren ondoren inkestek ematen zioten igoera mugatzeko asmoz eta PPK galtzea espero zen bozka jasotzeko itxaropenaz sortu zen; hala ere, ez zuen esperotako babesa jaso.

Hau horrela, Estatu mailako egoera nahasia geratu da, gehiengo osatzeko zailtasunak handiak izanez eta PSOE horretarako giltza eta aldi berean biktima izanez; hartu dezakeen edozein erabakik ere (aldaketarako Gobernu bultzatu zein PPK Gobernu osa dezan utzi) haien disoluzioranzko bidean aurrerapausoak emanez.

Hego Euskal Herriko emaitzei erreparatuta, deigarriena EH Bilduren beherakada izan da. Irakurketa asko egin daitezke, baina esango nuke aurreko hauteskundeetako egoera oso aldekoa izandu zela eta oraingoan Podemosek bildu dituela bozka hauek, bi arrazoi nagusirengatik: lehen aldiz ilusioa piztu duen Estatu mailako alderdia izan delako, eta zuk esan bezala, erabakitze eskubidea defendatzen duelako. Bestalde, Nafarroa mailan GEROA BAIK ere babesa galdu du, batez ere Nafarroako hauteskunde autonomikoekin alderatuz; bozka estatala nagusitzearekin. Horrengatik, hain zuzen, ez da ulertzen EAJK EAEn nolatan eutsi dion hain ongi Podemosen sarrerari.

Beno Mikel aurrerantzean ikusiko dugu zer gertatuko den, momentuz ilusioz hartu eta Urte berri On motel!



Koldo Nuñez-Betelu

LUZE

# Maite dudalako, maite zaitut

Itxuraz, gehienon beldurra izan ohi da maitatuak ez izatea. Baina benetako beldurra, bihotzez maitatzea omen da Erich Fromm idazlearen arabera, horretarako lehenengoz gure buruak maite behar baititugu. Honen ustez, maitatzea arte bat da, ez da besterik gabe sortzen zaigun sentimendua. Eta arte bat bada, ikasi egiten da maitatzen, alegia, gure barruan garatzen dugun ahalmen bat omen da. Areago, maite dugunean eta maite gaituztenean askoz hobeto sentitzen gara arlo guztietan eta honek laguntzen gaitu maitatzeko ahalmena garatzen.

Gure amaren barruan sortuak garen unetik aurrera, amaren maitasuna hasi gaitzke ezagutzen, salbuespenak salbuespen. Umeak jaiotzean, dena behar du, elikadura, babesa, beroa, garbitasuna, laztanak eta maitasuna. Sentitzen badu maitasunik ez dagoela, beldurtu egingo da haur jaioberria eta bere osasun psikologikoa hasiko da hondatzen. Dena den, gure bizitzetan heldu osasuntsu gehienok ezagutzen dugun lehenengo maitasuna, gurasoena izaten da. Baina, une txiki batean ere, sentitzen badugu maitatuak ez izateko arriskua, estrategiak garatuko ditugu gurasoen maitasuna lortzeko. Egoera hauetatik, lehenago edo beranduago guztiok pasatzen gara. Estrategia hauek eta maitatuak ez izatearen beldurra, gure barruan geratzen dira sakon eta helduak garenean, konturatu gabe segitzen ditugu erabiltzen eta, aldi berean, sentitzen maitatuak ez izatearen beldurra. Bestalde, haurrak sentitzen duen bezala, gurasook aldi berean gure umearenganako maitasun ikaragarri handia gara dezakegu. Umerik izan ez duen pertsonak ezin du jakin nolakoa den maitasun mota hau. Umeak, anai-arrebak baldin baditu, hauen artean ere gehienetan garatzen da elkarrekiko maitasuna. Eta maitasun mota hau, gero, adiskideengana zabalduko du, senideak bailira. Mun-



“Gure espezieak ezin izango luke aurrera egin sexualitaterik gabe”

duko beste gizakienganako elkartasuna eta enpatia sentitzean maitasun mota hau ari gara bititzen.

Umeak, gainera, poliki-poliki, beste maitasun mota bat garatuko du, maitasun erotikoa. Honek bere sexualitatea garatzera eramango du. Eta hau, gure gizarteko alderdi batzuk baztertzen badute ere, oso garrantzitsua da, gure espezieak ezin izango bailuke aurrera egin sexualitaterik gabe. Izan ere, sexualitate osasuntsu bat, osasun psikologikoaren oinarrian baitago. Sexualitatea ukatzea, bizitza ukatzea da. Aldi berean, badago beste maitasun askoz zabalago bat, maitasun espirituala. Honi esker, espiritualitatea bizi dugu bere zentzurik zabalenean. Natura, herria, hizkuntza, mundua eta arima sentitzera gure baitan eramaten gaitu honek.

Baina, maitasunak eskatzen du beste maitasun mota bat, geure buruak maitatzeko gaitasuna. Azkenean hau da oinarritzkoena. Nik ez badut nire burua maite, ezin izango ditut benetan beste maitasunak osoki sentitu. Hortik hasi behar dugu, alegia, geure burua maitatetik. Nire buruari hau ez badiot ematen, ezin izango diot benetan beste inori eman. Maitatzen ikasten da, maitatzeko ahalmena gara daiteke eta guztiok ahal dugu.

Maite zaitut esaten dudanean, nik daukadan ahalmen bat erakusten dut. Arriskuak hartzen ditut hori egitean, biluzi egiten bainaiz bestearen aurrean. Maite zaitut, nik maite zaitut, nirea den sentimendua erakusten dizut. Eta zuk ni maite nauzula adierazten badidazu, era berean, elkarren arteko zubia sortuko dugu. Maite zaitut baldintzarik gabe, zure askatasuna urratu gabe, zure beharrik gabe. Zure osotasunean, argiak eta itzalak, maite zaitut. Zu zeu zaren bezala maite zaitut, inongo aldaketa beharrik gabe. Azken batez, ni neu naiz eta zu zeu zara. Zu ez zaude mundu honetan nire beharrak asetzeko eta ni ez nago mundu honetan inoren beharrak asetzeko. Ez dago laranja erdirik, laranja osoak baizik. Bi laranja, elkarren ondoan mugitzeko bizitzan, biak aurrera begira.

Maitasuna oso indar handia da eta gudan dagoen hoberena ateratzera bultzatzen gaitu. Maitasunaren bidea, bide zabala eta argia da, poliki-poliki gero eta handiagoa egin dezakeguna gure baitan. Nik horrela sentitu izan dut. Gero eta maitasun handiagoa sentitzen dut nire bihotzean. Alabenganako sentitzen dudana maitasuna, seguruenik da inoiz sentitu dudana maitasunik handiena, baina ez bakarra. Goian aipatu ditudan maitasun mota guztiak ere sentitzen baitituz, gero eta sakonago, gero eta zabalduago.





Zoriondu itzazu zune lagunak edo senitartekoak  
Mailope aldizkariaren bitartez!

# KuxKuxean

## Iñigo Oreja

Urtarrilak 18.

Zorionak Aitatzxo!!!

Eutsi irripar horri urte askoan!

Muxu haundi bat Agurtzane, Egoitz, Eneko eta Itxaso.



## Izei Goñi

Ilbeltzak 16, 8 urte.

Zorionak txikito!! Ongi ongi pasa zure eguna eta muxu haundi bat etxekoan partez.



Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!  
Idatziezaguzu [mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net) e-postara hilaren 20a baino lehen.

## Larraungo Udalak onartutako mozioak:

### EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA

*"Honako konpromiso hauek bere egitea ebatzen du Larraungo Udalak:*

- 1) Herritarrei deia egiten diegu abenduaren 3tik 10era balkoietan EUSKARAZ BIZI NAHI DUT leloa duen bandera jarri dezaten.
- 2) Abenduaren 3tik abenduaren 10era arte gure udaletxean "Euskaraz bizi nahi dugu" bandera jarri eta mantenduko dugu.
- 3) Herritar, elkarte, erakunde, enpresa eta instituzioei ".eus domeinua" euskaratzeko deia egiten die Udal honek.
- 4) Hizkuntza eskubideak zapalduta sentitzen dituen oro, "Behatokia" (telefonoa@behatokia.eus) kexa jartzera animatzen du Larraungo Udalak.
- 5) Herritarrei "Euskarak 365 egun" lelopean deitutako ekimenetan parte hartzeko deia egiten die Udal honek. Euskaraz bizitzeko hautua egin duten herritarrak, norabide horretan urratsak ematen jarraitzea animatzen ditu Udal honek".

### AZAROA 25, EMAKUMEEN AURKAKO BIOLENTZIA DESAGERRARAZTEKO NAZIOARTEKO EGUNA

- 1.- Udalak, Emakumeen Mundu Martxak onartu duen biolentzia matxistari aurre egiteko protokoloa bere egiten du.
- 2.- Talde feminista eta emakume taldeekin (egotekotan) elkarlanean, Larraungo herriari lotutako biolentzia matxistei aurre egiteko plan iraunkorra abian jarriko du, horretarako behar diren bitarteko tekniko zein ekonomikoak aktibatuko ditu.
- 3.- Larraungo Udalerrian izan daitezkeen emakumeen aurkako erasoak identifikatzeko, salatze, desagerrarazteko eta aurreikusteko Biolentzia Matxistaren aurkako Behatokia abian jarriko du, feministekin elkarlanean.
- 4.- Udalak, izanak izena duenez, eta terminoak argitze aldera, etorkizunean "biolentzia matxista" terminoa erabiltzeari eutsiko dio, dagoeneko hedatua eta zabaldua dagoen kontzeptua baita adituen artean.
- 5.- Udalak, berdintasunen arloan baliabide tekniko zein ekonomiko hornitu ez ezik, egonkortu eta indartzeko konpromisoa hartzen du, 2016. urteko aurrekontuak zehazten ari diren une honetan.
- 6.- Udalak, Nafarroako Gobernuari dei egiten dio, emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko aurrekontu partidak handitu, berdintasun zuzendaritzak indartu, epaitegietako genero unitateak doitu eta legedia errebisatzeko konpromisoa hartzera.
- 7.- Udalak, dei zuzena egiten die hezkuntza eragileei lerro kurrikularretan genero berdintasuna landu dezaten.
- 8.- Borroka feministarekin daukagun konpromisoa berresten dugu, indarkeriarik gabeko jendarte demokratiko eta burujabea eraikitze bide eta tresna gisa.



## *“Euskarazko irrati eskaintza zabaldu nahi dugu”*

*2012an Nafarroako Gobernuak lehiaketa banatu zituen 44 irrati lizentzietatik bi Lekunberri eta Larraungo eremuan emititzeko izan ziren. Horietako bat Radio Amanecer irratiari egokitu zitzaion eta bestea Abian enpresak eskuratu zuen. Xabi Abasolo, Abian enpresako kudeatzailearekin izan gara.*

Lekunberriko Udalarekin negoziaketan dabiltza herrian antena jarri eta emititzen hasi ahal izateko. Nafarroako Gobernuak 2012an egindako lehiaketara aurkeztu zen Abian enpresa eta bederatzi irrati lizentzia eskuratu zituen. Xabi: “Lehiaketa horretara aurkezteko espreski sortu genuen Abian komunikazio enpresa. Nafarroan eta Euskal Autonomia Erkidegoan komunikazioaren alorrean gabiltzan jendea elkartu ginen”. Bederatzi lizentzia bereganatu arren oso potentzial txikikoak dira denak. Kasu honetan Lekunberri eta Larraungo herrietan entzungo litzateke eta agian Betelu eta Araizko zenbait herrietara ere iritsiko litzateke.

Herri batzuetan jada lortu dute antena jartzea eta dagoeneko frogatu moduan emititzen hasiak dira, Leitzan eta Beran esaterako. Lekunberri eta Larraungo

lizentziaren kasuan zailtasunak dituzte antena jartzeko. Lizentziak berak mugatu egiten du antena jartzeko prozedura, leku zehatzak, azpiegitura berririk ez sortzea etab. Xabi: “Hemen inguruan begiratzen ibili ginen eta Lekunberriko malkorreen dagoen Aralar Irratiko antenarekin batera jartzeko proposamena egin genion Industria Ministerioari. Onartu egin ziguten baina orain Lekunberriko Udalaren baimenaren zain gaude”. Lekunberriko Udalak bere aldetik gaia aztertzen ari direla adierazi du.

*“Programazioaren %80 euskaraz izatea nahi dugu”*



**Noiz onartu zizuen Industria ministerioak antena malkorrean jartzeko proposamena?**

2014an onartu zuen Ministerioak proposamena eta geroztik izapideak egiten gabiltza. Udalean gure proiektua eta asmoak aurkeztu genituen eta oraindik ez dugu erantzunik jaso baina espero dugu akordio batera iritsiko garela.

**Zein da zuen proiektuaren helburu nagusia?**

Gure proiektuarekin aniztasuna zabaldu nahi dugu euskarazko irrati eskaintzari dagokionean. Nafarroak bizi duen egoera berezia da eta uste dugu irrati-gintzan bestelako proiektuak martxan jartzea ere beharrezkoa dela, batez ere euskara oinarrian izanda.

**Zuen irratiko saioak euskaraz eskainiko dituzue beraz?**

Gure proiektua elebiduna da, baina programazioaren %80 inguru euskaraz izatea nahi dugu. Gaur egun beste irrati batzuekin elkarlanean gabiltza euren saioak sartuz, Euskalerrria irratia, Eguzki Irratia, Hala bedi, Bilbo Hiria... Hau da, Arrosa sareko irratiekin ari gara lanean. Hala ere, etorkizunean bertako programazioa garatu nahi dugu, Nafarroari begirakoa. Eta bestetik, ikusi beharko litzateke ea eskualde honetarako espreski edukirik sortu dezakegun.

**Horrek inbertsio bat ere suposatuko du...**

Bai, hori konplexuagoa da, inbertsioak egin beharko liratekeelako toki bakoitzean. Ikusi beharko dugu leku bakoitzean zein baldintza dauden eta ea informazio lokala bermatu dezakegun.



Xabier Abasolok Lekunberriko Udalarekin adostasunera iritsiko direla uste du.

Horretarako tokiko beste komunikabideekin harremanetan jarri nahiko genuke denon artean proiektua osatzeko.

**Eta estudioa non daukazu?**

Oraindik proiektu guztiak itxi arte ez ditugu inbertsiorik handienak egiten hasi nahi. Baina ziur aski Nafar Telebistaren

egoitzan izanen dugu gunea. Izan ere, Abian Nafar Telebistako lizentzien jabea ere bada, nahiz eta orain telebista fundazio batek kudeatu. Baina enpresa bera izanik elkarlanean arituko gara beraien ere.



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean  
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta  
14:30etatik 17:00etara



**BACALAO  
ELKANO  
S.L.**

Industrialdea, 11  
31870 Lekunberri - Nafarroa  
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792  
[bacalaoselkano@jet.es](mailto:bacalaoselkano@jet.es)  
[www.bacalaoselkano.com](http://www.bacalaoselkano.com)

## Urtarrilaren 17an izanen da XI. Araithz-Beteluko Herriarteko Krosa



Hil honen 17an, igandea, izanen da Araithz eta Betelun egiten den urteroko krosa. Goizeko 10:30ean hasita haurren probak egingen dira. Adinaren arabera banatutako bost kategoriatan egingen dute lasterka eta parte hartzaile guztientzat izanen dira dominak. Horretarako egunean bertan Beteluko eskolan 09:30etik 10:00etara eman beharko dute izena.

Proba nagusia berriz eguerdiko 12:00etan izanen da eta urteroko ibilbide bera egin beharko dute korrikalariek: Betelutik Atallurainoko buelta bi aldiz. Guztira 7,7 kilometro.

Dagoeneko proba nagusian izen emateko epea zabalik dago [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com) atarian, baina egunean bertan ere horretarako aukera izanen da Beteluko plazan, goizeko 10:45etik 11:30era bitarte.

## Zwekere taldeak Mailoperen aldeko kontzertua eskainiko du Kantinan urtarrilaren 24an

Zwekere taldea Oskar Estangak batukada eta euskal kantak uztartuz 2013an sortutako proiektua da. Esteribarko batukadako Urtzi, Markel eta Maga, Lekunberriko Igor eta Ainara, baxuan Auzperriko Eburne, Saxoan Gareseko Jabik osatzen dute taldea.

Aurreneko kontzertua 2014ko maiatzean eman zuten Nabarrerian eta ondoren plaza askotan ibili dira, Elizondon, Atarrabian, Zumarragan, Lekunberri, Sorogainen, Urepelen (Korrikari hasiera ematen)... Eta Sortzen Jaiaren 2015eko abestia ere euren egin zuten.

Apirilaren 2an Gernikako Astran eskainiko dute azken kontzertua, baina aurretik gurean ere izanen dira. Urtarrilaren 24an, igandean, arratsaldeko 19:00etan Kantinan izanen dira. Bost euroko sarrera izanen da eta kasu honetan taldeak kon-

tzertu horretan ateratako etekinekin Mailoperen alde egitea erabaki du. Beraz, animatu eta hurbildu!



**GRUPO TANATORIO**  
**IRACHE**  
 TANATORIO TALDEA

948 19 70 70  
[www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)

TANATORIOAK: ALTSASU-IRURTZUN-  
 LEKUNBERRI-BETELU-LEITZA

  
**urrutia**  
*enea*

etxeko hestekiak  
**LEKUNBERRI**

**OTXOTORENA**  
 okindegia

**ARRIBE** 

**ADIII TLF BERRIA:**  
 948 51 30 32

**GALBURU**  
 panaderia okindegia

**RIOJA**

Tel: 948 50 40 42 - 609 720 313  
 Alde Zaharra, 50 - 21670 LEKUNBERRI (Nafarroa)



## Bertso-afari arrakastatsua

90 lagun inguru bildu ziren joan den abenduaren 5ean Mailoperen aldeko bertso-afarian. Araitz eta Beteluko gazte kuadrilla batek Atallun antolatu zuen bertso-afarian Julen Zelaieta eta Aitor Sarriegi aritu ziren bertsotan. Eskualde osoko jendea elkartu zen, gaztetxoak eta ez horren gazteak. Ondorengo gaupasak ere luzerako eman zuen eta bai antolatzaileak eta baita bertaratu zirenak ere pozik gelditu ziren.



## Jostailu eta elikagai bilketa egin dute Ibarberriko Elkartasun Astean

Azaroan Betelun jostailu trukaketa egin zen moduan, abenduan Lekunberriko Ibarberri ikastetxean elkartasun astea antolatu zuten Gizarte Zerbitzuaren eta Guraso Elkartearen ekimenez.

Abenduaren 14tik 18ra bitarte gaztetxoek euren jostailuak eta elikagaiak eraman zituzten eskolara. Eta horrela astearen amaieran asko ziren bildutako jostailuak, ondoren Senegaleko haurren alde lan egiten duen Fundació Talibes Gobernuz Kanpoko Erakundeari emateko. Bildutako elikagaiak berriz Nafarroako Elikagai Bankura eraman zituzten.

Iosune Zabala, gizarte langilea: "Aurten ere eskertu beharra daukagu Araxes eta Ibarberriko guraso elkarteko kideek egin-dako lana eta hartutako konpromisoa. Baita ikastetxeei ere eskainitako laguntza eta inplikazioagatik, denon artean ekitaldi hauek aurrera eraman ahal izateko. Eta nola ez, eskerrik asko guraso, familia, neska eta mutikoei bertan parte hartzeagatik eta elkartasuna, honelako modu politean adierazteagatik. Horrela jarraitu dezagun, honelako programak herrietan bultzatzeko".

 **ALIPROX**  
Lekunberri  
*janaridenda*  
hamabostaldiro  
eskaintza bereziak

*Iñigo Garaioa*  
**MARGOLARIA**  
 **696 658 288**  
**LEKUNBERRI**

 **SUAKONTROL**  
**LEKUNBERRI**  
*Suaren kontrako plakak*  
Oztegin kalea 25,  
Lekunberri  
948 60 48 96 (Tel.)  
948 60 45 16 (Faxa)  
suakontrol@grena.es  
www.grena.es

**IORTIA** LEKUNBERRI  
Juanjo Gaité García · Odontologoa Kol. Zbkia. 317  
Estitxu Telleria Elorza · Odontologoa Kol. Zbkia. 591  
Lekunberri: 948 604 804 - 618 818 005  
Altsatsu: 948 467 603 - 667 66 17 69  
ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·  
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI



# *“Frogatuta dago irribarre polit bat duenak arrakasta handiagoa duela”*

- 14 -



*Ane Vitoria Iortia Hertz Klinikako odontopediatría alhokularia izanen da aurrerantzean, bezero txikienen beharrei erantzunez. Otsailaren 19an, Lekunberriko Ibarberri eskolan hitzaldia eskainiko du.*

*Oso maitea du bere lanbidea, baina hortzen eta ahoko osasunaren zainketatik haratago bestelako zaletasunak ere baditu. Musika da bere afiziorik handiena. Dagoeneko bere bigarren diskoa kaleratu du.*

#### **Nor da Ane Vitoria?**

Getxon bizi den Odontopediatra eta Ortodontista donostiarra naiz. “Magia” duten irribarreak sortzeaz gain, odontologia kanpotik dauden hainbat afizio ditut oso gustuko. Horien artean, gehienbat, abestiak sortu, idatzi eta abestea ANKENAI izen artistikoarekin. Lagunekin eta familiarekin egotea, izotz irristaketa, irakurtzea eta leku eta pertsona desberdinak ezagutzea ere gustatzen zait.



## Zein izan da zure orain arteko ibilbide profesionala?

Euskal Herriko Unibertsitatean Odontologia ikasi ondoren, Odontopediatrian Masterra egin nuen Madrilen eta ondoren Ortodontzia Estatu Batuetan ikasi nuen. Gero irribarrearen estetikan berezitatuko ikasketak ere egin nituen eta geroztik egia esan, beti nabil ikastaro ezberdinak egiten eta azkeneko teknologietan formatzen. Ortodontziako Damon sistema, DSD irribarrearen digital diseinua, Insignia Ortodontzia digitala, Ortodontzia gardena eta haurren lehen urteko Ortodontzia dira gehienbat lan-tzen ditudan atalak.

## “Geroz eta txantxar handiagoak ikusten ditut klinikara etortzen diren lau urtetik beherako haurretan”

### Nolatan erabaki zenuen odontologiaren munduan lan egitea? Zerk erakartzen zintuen?

Betidanik izan dut gustuko osasunaren mundua eta esku lanak. Odontologian biak landu ditzaket eta niretzat lan egiten dudanez, beste gauza batzuk egiteko aukera ematen dit.

### Gaur egun zure klinika propioa dauka-zu Getxon. Noiztik? Zein zerbitzu eskaintzen dituzue bertan?

Bai, nire kontsulta 1994. urtetik Getxon dago eta haurren Odontologia eta irribarrearen estetika kontuan hartzen duen haur eta helduen Ortodontzia egiten espezializaturik nago.

### Zer da haurrekin lan egiterakoan gehien kostatzen zaizuna?

Haurrak txikitatik Odontopediatrian espezializaturik dauden dentistengana joango balira ez lukete beldurrik izango. Haurrek bere lengoian hitz egingo dien dentista behar dute eta prebentzio eta tratamendu berezia.

### Anekdotarik?

Milaka anekdota ditut haurrekin. Baina gehienbat bere muxu eta egiten dizkidan marrazkiekin gelditzen naiz.



lortia Hartz Klinikako bezeroek odontopediatra zerbitzua izanen dute eskura.

### Ahoko osasuna behar bezain ongi zaintzen dugula uste duzu? Zeintzuk izaten dira txikienezako ematen dituzun gomendioak?

Orokorrean ez, jendeak ez du ahoko osasuna batera ondo zaintzen. Geroz eta txantxar handiagoak ikusten ditut lau urtetik beherako haurretan. Hartzak dituzten eta amaren titia hartzen ari diren haur horien gurasoei, ura eta gomazko titare batekin euren hurrei esnea hartu ondoren hartzak garbitzea gomendatzen diet. Helduxeagoak diren hurrei berriz, hau da, 6 urte arteko, heldu baten laguntzaz eta pastarik gabe, egunean hiru alditan hartzak garbitzea.

### Gaur egun gaztetxo askok eramaten dituzte hartz zuzentzaileak. Osasun kontua baino gehiago estetika kontua bihurtu dela uste duzu?

Aztertua dago irribarre polit bat duenak arrakasta gehiago duela eta gurasoek horixe nahi dute euren seme-alabentzat. Gure eskutan dago gurasoei koska ondo nola egiten den erakustea eta jakinaraztea. Estetikak eta ondo koska egiteko erak batera joan behar dute. Ezin dira bakarrik hartzak zuzendu koska ondo egin gabe. Horrexegatik Ortodontzian formaziorik ez duen dentistak ezin ditu aparatuek ipini.

### Krisiarekin nabaritzen al duzue jendeak utzikeria handiagoa duela dentistarenera joateko?

Krisia dela eta jendeak beste lehenta-

sun batzuk ditu, baina prebentzioa ezin da alde batera utzi ez baita garestia eta horretan jardun beharko litzateke, bestela tratamenduak zaildu egiten dira eta kostua asko handitzen da.

## “Ezin dira hartzak bakarrik zuzendu koska ondo egin gabe”

### Liburu bat ere argitaratu berri duzu. Nondik sortu zen proiektu hori?

Urteak pasa eta haurren odontologiari buruzko nire paziente berrien gurasoen ezjakintasuna geroz eta handiagoa zela sumatu nuen. Hori dela eta gurasoentzako gida labur eta argia egitea pentsatu nuen.

### Liburuan zer da bildu duzuna?

Liburuan niretzat oinarritzeko diren gaiak ipini ditut: noiz hasi dentistan, fluorra zer den, hartzak nola garbitu, zer egin kolpea izan ondoren, koska ondo nola egin etab.

### Non aurkitu dezakegu salgai?

Liburua dohainik dago nire kontsultan eta interneten, nire webaren bidez edo eta ibook-en bidez, [www.anevitoria.com](http://www.anevitoria.com).

## **Iortia Hertz Klinikarekin zein harreman duzu? Eurekin elkarlanean hasiko zara aurki ezta?**

Iortia Hertz Klinikaren sortzailea den Juanjo Gaitte doktoreak nirekin ikasi zuen Odontologia eta hertz klinikaren aholkularia izango naiz haurren odontologiaren arloan.

## **Lekunberrin hitzaldiren bat eskaintzeko asmoa ere baduzue. Noiz? Zeini zuzenduta egongo da hitzaldia?**

Hitzaldia otsailaren 19ean izango da eta interesaturik dagoen orori zuzenduta dago, baina batez ere haurrak dituzten gurasoei.

## **Musikagintzak leku garrantzitsua du zure bizitzan ezta?**

Bai. Dentistaz gain abeslaria ere banaiz ANKENAI izen artistikoarekin. Musika gabe ez dut bizitza ulertzen. Musika eta hitzak sortzeak odontologiaren mundutik ateratzen nau eta bizitzan oreka lortzeko oso ona da niretzat.

## **Nolatan eta noiz sortu zen ANKENAI?**

ANKENAI orain dela bost urte sortu zen. Betidanik gustatu izan zait abestea eta askotan egon izan naiz abesbatzan edo

konboetan sartua eta ahots klase asko hartu ditut. Hori dela eta, nik sortutako abestiak abesteko nahia sortu zitzaidan. Hasieran proba bat baino ez zen izan, baina orain apustu gogorra eginez, nire musika zabaltzea dut helburu.

## **Aurten zure bigarren diskoa kaleratu berri duzu...**

Bai. Durangoko azokan egon berri naiz eta urtarrilaren 23an Bilborocken izango den kontzertura gonbidatzen zaituztet. "Zenbait amore desberdin " nire bigarren diskoa aurkeztuko du.

Euskaraz ohikoak ez diren estiloetan abesturiko hamar abesti eta ingelesez abesturiko beste bat (bonus track moduan) bildu ditut. Bizitzan amore desberdinak daude eta horiei abesten diet: amaren maitasunari, emakumearen askatasunari, nire herriari, etorkinak diren hurrei, maitasun galduari, gau bateko amoreari...

Kalitate oneko disko polita atera dela uste dut eta plataforma digital guztietan eta [www.ankenai.com](http://www.ankenai.com) atarian entzun eta eros daiteke. Nafarroan kontzerturen bat emateko aukera izatea ere asko gustatuko litzaidake, ikusiko dugu, ea aukerak etortzen diren. ■



Ane Vitoriak ez du bere bizitza ulertzen musika gabe.



Erosi zeurea  
12 euroren  
truke!

# ENE KANTAK

Oneka Marrazoaren  
ikusbizuna orain DVD-an.

Mailope aldizkariaren aldeko  
proiektua.

Informazio gehiago: [www.enekantak.com](http://www.enekantak.com)





## *Beste 25 urtez bidean jarrai dezagun*

Mailope aldiakariaren 25. urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu genituen urritik abendura bitarte eta joan den hilaren 13an egin genuen Mailope lasterkarekin borobildu genuen. Arrakasta handia izan zuen. 25 kilometroko ibilbidea proposatu genizuen, Baraibartik Atallurainokoa eta zortzi kilometro erdi baino ez ziren gelditu saltzeke. Hala ere, eskualdean ditugun lasterkari finei esker ez zen korrikalaririk gabeko kilometrorik gelditu.

Goizeko hamaiketan atzerapen pixka batekin (arazo teknikoak tarteko) irten ginen Baraibartik eta gorritiarrek eraman zuten lekukoa lehenengo kilometroetan. Ondoren, Iribas, Mugiro, Arruitz... eskuz esku pasa genuen Arribeko Javier Aristik guretzat egindako lekukoa.

Parte hartzaileen artean, heldu zein gazte, aldiakaria bere sorreratik ezagutu dutenak nahiz eskualdera bizitzera orain gutxi etorriak, bertsolariak, ikasleak, udal ordezkariak... perfil guztietako irakurleek parte hartu zuten. Ekimena bera urte hauetan guztietan aldiakaria aurrera ateratzeko egindako esfortzu eta jasotako laguntzaren metafora bihurtu zen. 25 kilometro horietan zeuden laguntza ekonomikorik gabeko

hutsuneak bezala, 25 urte hauetan ere izan ditugun oztopo ekonomikoek gainetik ez baitiugu aldiakaria kaleratzeari utzi, eta hori zuei esker izan da. Eskerririk asko!







Etxarrin izan genuen korrikalaririk txikiena.



Gorritiarrek eman zioten hasiera lasterketako lehen kilometroei.



Amaiera jendetsua izan zuen lasterketak Atalluko pilotalekuan.





## Ole Olentzero...

Olentzeroren etorrera urtero bezala pozarren hartu zuten haurrek. Gabon gaua iritsi baino egun batzuk lehenago Araxes eta Ibarberriko eskoletatik pasa ziren Olentzero eta Mari Domingi urte amaierako festa eurekin ospatzeko. Bestalde, Eguberrien bezperan allandoen ohiturari eutsiz Azkaraten eta Gaintzan etxe etxe ibili ziren abesten. Gaintzan, garai batean bezala, laranja eta pikua bildu zituzten. Arriben, Atallun eta Betelun ere Olentzeroaren irudia bizkar gainean hartuta ibili ziren etxe etxea eskean. Gainera, antolatzaileek egun horretan bildutakoa aurten Mailoperi ematea erabaki dute. Opari ederra Eguberri hauetan! Eskerrik asko.



  
**CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.**  
 ZURGINTZA OROKORRA  
 INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI  
 Telefonoa eta Faxa: 948507343  
 carpinteria@carpinteriaazpiroz.com

**OGI-BERRI ALTZA**  
 Aralar kalea, 41  
 Lekunberri  
  
**OGI BERRI**  
 OKIN ARTISAUAK 948604884

**AURRERA  
 TABERNA  
 ARALAR, 15  
 948 60 47 24**

**TAXI  
 SOROA  
 609 168 217  
 Bederatzi plaza**



## Araitz-Beteluko Eguna

Goizean goiz zerua nahiko ilun bazen ere eguraldiak eutsi egin zion joan den abenduaren 8an Betelun ospatu zen Araitz-Beteluko Egunaren mesedetan.

Betelu, Araitz eta Lekunberriko txistularien goiz-soinuarekin eman zioten hasiera festari. Ondoren, goiz osoan zehar artisau azoka izan zen plazan, tartean eskualdeko talogileak. Iruñeko zanpantzarrek ere euren erakustaldia egin zuten eta txikienek artzarekin ederki gozatu zuten. Eguna borobiltzeko eguerdian bazkari baten bueltan bildu ziren Zigari elkarteak.



## Jaio.Musika.Hil. Diskoaren binilo gardena kaleratu du Berri Txarrak taldeak

Aurtengo Durangoko Azokan lanik salduenetakoa izan da *Jaio.Musika.Hil.* eta orain disko horren binilo gardena kaleratu du Berri Txarrak taldeak. 2015a urte emankorra izan da taldearentzat. Europan, Mexikon eta Estatu Batuetan ibili dira Denbora da poligrafo bakarra disko hirukoitza aurkezten eta estuan emandako kontzertu askotan sarrerak agortu egin dira. Gainera hirukotea bereziki saritua izan da aurtun. Premios Fest sariketan Estatuko Zuzenekorik Onenaren Saria jaso zuten, Denbora da poligrafo bakarra lanarengatik Euskarazko Diskorik Onenaren saria eman zieten Premios de la Música Independiente (MIN) sariketan eta Bideoklip Onenaren saria berriz Caóstica Zine jaialdian.

**asegurogintza**  
aseguru aholkulariak  
**Zure ondarea eta segurtasuna babesteko modu bakarra behar bezela aseguratua egotea da**  
Telefona: 943652220. [asegurogintza@aseguroak.net](mailto:asegurogintza@aseguroak.net)  
Lizardi Olerkaria 1, 20400 Tolosa

**CONSTRUCCIONES GAÑARBE ERAIKUNTZAK S.L.**  
Etxebizitzaren eraikuntza eta errehabilitazioa  
948 504 351 - 616 457 540  
[construccionesganarbe@gmail.com](mailto:construccionesganarbe@gmail.com)  
Oztegin kalea 2, Lekunberri

# Santa Ageda bezperan kalez kale

Otsailaren 4an, osteguna, Agate Deunaren bezperan kalera irtengo dira herritarrak kalez kale koplak abestera. Araiztarak eta beteluarrak aurtan Gaintzan elkartuko dira arratsaldeko 17:00etan eta bertan ibiliko dira eskean eta kantuan. Lekunberrin ere urteroko erronda egingo dute eta ondoren Larraungo zenbait herritan barna ibiliko dira.



# Eguberrietako kontzertua eskaini du Lekunberriko abesbatzak

Eguberrietako kontzertua eman zuen Lekunberriko abesbatzak joan den abenduaren 27an. Hil berria den Don Jesus Jaimerenari eskaini zioten hein handi batean kontzertua, abesbatzak aurrera egiteko lan handia egin zuelako beti. 35 abeslari aritu ziren abesten Juan Miguel Etxarri eta Javier Martijaren zuzendaritzapean. Bestetik, organoa joz Miren Urrutia eta Belen Balenciaga aritu ziren. Hamaika obra abestu zituzten guztira, tartean Charpentierren "Te Deum" eta Verdirren "Nabucco" lanak.

# 50 urte bete ditu Nafarroako Mendigoizaleen Egunak

Urtero legez Eguberri aurreko igandean, Nafarroako Mendigoizaleen Eguna ospatu zen Aralarko San Migel Santutegian. Aurtengoa ordea berezia izan zen, 50 urte bete baititu aurtentzen. Goiz goizetik mendizale asko oinez igo ziren Madoztik, Ata ibarretik, Sakanatik, Lekunberritik...

Beste horrenbeste autobusetan eta autoz igo ziren Mikel Garziandiak emandako Meza Nagusia entzuteratzen. Ospakizunean Lekunberriko abesbatzak, dantzari eta txistulariek parte hartu zuten. Gainera, ohiko moduan hildako mendizaleak gogoratu zituzten.



Argazkia: Joxe Mari Zabaleta

NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA  
ARLOETAKO HORNIGAIK  
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA

**URZUBI S.A.**

Tel. 948 50 42 41  
Fax 948 60 45 20

Lekunberri  
urzubi@hotmail.com

**NEKAZARI, S.L.**  
Kubota  
STIHL  
ANTONIO CARRARO

Olagain. Mugiro. Nafarroa  
Tel.: 948504128  
Fax: 948504377  
nekazaris@hotmail.com

**AMAIURU BAR**

ETXIKO PIZZAK,  
KOPA BERGIZIAK

948504352

**Kantina Rock**

948  
60  
48  
21

**KANTINA**

bokatak, platerak eta...musika.....

**TAXILON**

661 202 249  
(9 plaza)

E-posta: lotamendi5@gmail.com

Atallu - Araitx

Lontxo  
Otamendi  
Artola



# Aurreko denboraldiko golagatik gazta berri bat jaso du Oier Sanjurjok



Hirugarren urtez Aritz eta Beteluko Oier Taldeak afaria egin zuen joan den hilean Beteluko Zigari Elkartean, Oier Sanjurjo beraren presentziarekin. 2013ko azaroan bildu ziren lehenengoz eta geroztik urtean behin elkartzen dira afari edo bazkari baten bueltan eta inguruan jokatzeko di-

tuen partiduetara ere joaten dira animatzera. Gainera taldeko lehendakaria den Joxe Zubillagak azaldutakoaren arabera, denboraldian sartzen dituen gol bakoitzeko gazta bat oparitzen diote, "denboraldi honetan dagoeneko bi sartu ditu, beraz hurrengo urtean bi gazta behintzat eman beharko dizkiogu".

29 urte ditu eta Lizarran jaioa da Oier. Irakaskuntza ikasketak egin zituen, baina ez da inoiz irakasle lanetan aritu, 2007an hasi baitzen Osasunako lehen taldean jokatzeko.

Duela hiru urte gaztetxoek talde nafarrarekiko zuten lotura eskasaz oharturik, beteluar eta araitzar batzuen artean Osasunako jokalariren baten aldeko talde bat osatzeko ideia sortu zen. Asmo horrekin jarri ziren harremanetan Lizarrakoarekin, batez ere euskalduna izanagatik aukeratu zuten bera eta hasieratik prest agertu zen. Oier: "Hasieran harritu egin ninduen. Betelu eta Aritz ibarra ez nituen aurretik ia ezagutzen, baina lehenengo egunetik oso ongi hartu ninduten eta gustura etortzen naiz".

Orditik geroz eta Osasunaren jarraitzaile gehiago daude gaztetxoaren artean eta Oierren izena daramaten kamisetak eta bufandak ere egin dituzte.



Aurten gazta bakara jaso du, baina hurrengo urtean gutxienez bi izanen dira.

## Hodei Otegi Pista Estaliko Espainiako Txapelketan izanen da lasterka

Joan den hilaren 23an, Anoetako estadioan, Hodei Otegi 7,55 segundoko denbora lortu zuen 60 metro leuneko proban. Hori da hain zuzen ere Espainiako txapelketan parte hartu ahal izateko behar zuen gutxienezko marka. Beraz, datorren martxoaren 12 eta 13an Oviedon jokatu den Pista Estaliko Espainiako Txapelketan egingen du lasterka kadeteen kategorian. Lekunberriarrak lehenengo urtea baino ez du kategorian horretan eta dagoeneko Espainian lehiatzeko aukera lortu du. Zorionak Hodei!

## Pilotazaletasunaren iragana oroitzuz eta etorkizuna ziurtatuz

Larraun Pilota Elkartek profesional izandako 24 pilotari omendu zituen joan den hilan Lekunberriko Jaian Jai pilotalekuan. Ikasturte berriko aurkezpena ospakizun handi bat bihurtu zen. Aurten 70 gaztetxo dabilta elkartearen. Euren kirol arropa berria aurkeztu zuten eta hiru partidu jokatu zituzten. Larraungo Txapelketako kadeteen finala 18-17 irabazi zuen Aritz Lorentek Aimar Saralegiren kontra. Afizionatuen lau t'erdiko partidua berriz Anartz Olanok eta Imanol Garraldak jokatu zuten (22-12) eta azkeneko partiduan binakako partiduan aritu ziren Lenitz Galarza eta Ibai Iriarte, Julen Martija eta Iker Espinalen aurka (18-13).

Hala ere, aurkezpeneko momenturik gogoangarriena omenaldia bera izan

zen. Zendu berria den Don Jesus Jaime-renak bailaran pilotazaletasunaren alde egindako lana goraiatu zuten elkarteeko kideek, baita azkeneko urte hauetan guztietan lan egin duten hainbat pertsona ere, Guillermo Mazo, Karlos Balda, Joxe Mari Astiz, Angel Soroa...

Beraiei eta egun elkartearen lanean diharduten herritarrei esker jarraitzen du pilotak halako arrakasta izaten. Baina zaletasun hori ez da berria. Azken 50 urte hauetan, profesioaletan ibilitako 24 pilotari ditu Larraunek eta banan-banan euren ibilbidea gogoratu eta lortutako enbiziak aitortu zieten. Horietatik hamar pilotariak izanak dira, bederatziz palistak, zesta puntako pilotari bat eta lau erremontista.

*Argazkiak: Juan Antonio Garaikoetxea.*

### Omendutakoak:

Errazkingo Oreja I, Oreja II, Oreja III, Martinikorena, Intxaurren, Artola, Ansorena, Ansorena I, Ansorena II, Ansorena III, Otermin eta Matxinandiana.

Baraibarko Goldarazena, Galarza III, Galarza V eta Chafee.

Gorritiko Bernal, Ezkurdia I eta Ezkurdia II.

Arruizko Azpiroz.

Uitziko Martirena eta Soroa III.

Lekunberriko Aldaregia.

Mugiroko Saralegi.



Eusebio Otermin izan zen oroigarria jaso zuenetako bat.



Enrique Galarzak semearekin batera jaso zuen oroigarria.







Juan Cruz Martirena uitziarra.



Gorritiko Iñaki Bernal ere profesionaletan aritutakoa da.



Karlos Balda urte luzez aritu da pilota eskolan lanean.



- 25 -



## Egin zaitez Larraun Pilota Elkarteko bazkide!

Larraun Pilota Elkarteak bazkide kanpaina jarri du martxan, aurrera egiteko laguntza beharrezkoa duelako, sozialki eta ekonomikoki. Bazkideek urtean 20 euroko kuota baino ez dute ordaintzen eta bazkide kopurua handitzea elkartearentzat sostengu ekonomiko garrantzitsu bat izateaz gainera, etorkizuna ziurtatzeko herritarren aldetik jasotako babesaren erdia bada. Interesatuak bazkide fitxa bete eta larraunpe@gmail.com helbidera bidali beharko dute edota Lekunberriko Jaian Jai pilotalekuaren kanpoaldean dagoen postontzian utzi. Bazkide egitea baino euren borondatea ematea nahiago dutenek ere horretarako aukera dute.

Eskatu zure bazkide fitxa: larraunpe@gmail.com helbidean edo 629436143 telefono zenbakian.

## Kaixomaitia.eus, euskarazko harremanetarako ataria

Berritze lan intentsibo baten ondoren, Kaixomaitiak, euskaldunon harremanetarako guneak, aro berri bati emango dio hasiera gaurtik, abenduaren 18tik, hasita, "Saltsa badago!" lelopean. Hiru oinarriek eutsiko dute proiektu berria: Kaixomaitia.eus, harremanetarako webgune eraberritua; Kaixomaitia Ekintzak, pantailaren beste aldean jendea ezagutu eta elkarrekin gozatzeko jardunaldiak; eta Kaixomaitia Blog-a, kolaboratzaile sare batekin harremanei buruzko hausnarketa egin eta iritziak partekatuko dituenak.

Kaixomaitia.com 2007.urtean jaioetako euskaldunon euskarazko harremanetarako lehen ataria da, Iñigo Arandiak sortua eta, egun, bakarra izaten jarraitzen du. Denboran zehar, akats eta abilezien ondorioz ikasiak, zerbitzuak moldatuz joan dira:

Webguneak eta proiektuak, orohar, izaera berdefinitu eta diseinu identifikagarri batekin egingo du aurrera. Bizipoxa, auzardia, aukera, ahalduntzea, aldarrikapena, askatasuna eta gozamenaren alde agertuko da Kaixomaitia gunea eta jarrera horretan oinarriturik eraiki dute online ataria.

Gainera, kalitatea, segurtasuna eta profesionaltasuna bermatuko da, webgunearen eredu / zentzu sutsuari jarraituz: kalitatezko soslaiak osatuko dituzten erabiltzaile aktiboak izango dira protagonistak, kalitatea eta emaitzak jasotzearen truke zerbait ordainduko dutenak, gutxi bada ere.

Azken ideia horri eutsita, harpidetza salneurriak soslaiaren argazkiaren eta iraupenaren arabera ezarriko dira. Horretaz



Iñigo Arandiak sortu zuen proiektua eta oraindik bera da webgunearen kudeatzailea.

**BIDEGOXO JATETXEA**

Jaunartzeak  
Ezkontzak  
Ospakizunak  
Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldegia  
20400-TOLOSA 943 577 576  
info@bidegoxo.com

Industrialgunea  
Lekunberri 9 - 31870  
LEKUNBERRI

**Cyclos  
IREBER**

**BIZIKLETA DENDA ETA TAILERRA**

Iñigo - 637 781 789  
cyclosireber@yahoo.es - www.facebook.com/cyclosireber



gain, erabiltzaile guztiek lehen hilabetea dohainik probatzeko aukera izango dute hasiera batean (soslaieko argazkia irekia jartzearen baldintzapean) eta epea pasa ondoren, bakoitzak, erabakiko du webgunean harpidetza egiteagatik hautatu edo ez. Honela, kaixomaitia.eus-ek ordaineko harpidetza eskatuko du behin harpidedunak dohainik zerbitzua ongi ezagutu duenean.

Zerbitzu eta funtzionalitate berriei dagokienez, hauek dira azpimagarrienak: bilaketa aurreratuak, bat-bateko mezularitza sistema, ordainketa egiteko baliabide ezberdinak (mikro-ordainketak eta txartel bidezkoa), soslaiaaren pribatasuna egokitzeko aukera (profilaren ikusgarritasuna, borondatez erakutsi ahal izango den argazki pribatua...) eta Zirri-Mirri (bateragarritasuna bilatzen duen argazki karrusel jolas).

#### Pantailaren mugak gaindituz, Kaixomaitia kalera

[www.kaixomaitia.eus/eu/ekintzak/](http://www.kaixomaitia.eus/eu/ekintzak/)

Kaixomaitiak webgunetik eta pantailatik kanpoko zerbitzu berriak martxan jarriko ditu, Kaixomaitia Ekintzak izenpean. Horietan, harremanetarako webgunean harpidetza ez duten pertsonak ere parte hartu ahal izango dute, teknologien lagun ez direnei ere harremanetarako eta ondo pasatzeko aukera zabaltzeko asmoz, guztiok Kaixomaitian gure lekua aurkitu dezagun.

Idea asko dituzte jada jendea giro paregabean biltzeko eta beste elkarte batzuekin elkarlanak adosten dabiltza zerbitzu berezi eta osoak eskaintzeko. Besteen artean, sukaldaritza ikastaroak, harremanei buruzko hitzaldiak, kirol ekintzak, ibilaldiak, jarduera kulturalak, speed dating-ak... antolatuko dira, urtariletik aurrera; hitz bitan, agenda alaitzeko plan oso tentagarriak.

#### Kaixomaitiaren hizki saltsa, blog-a

[blog.kaixomaitia.eus/](http://blog.kaixomaitia.eus/)

Blogean, astero, kaixomaitiak bere ekarpenak egingo ditu proiektuaren berri emateko eta, horrekin batera, kolaboratzaile eta jarraitzaileek ere euren zeresana izango dute. Kaixomaitiren lagun horiek kazetari, iritzi emaile, itzultzaile, eta generoan espezializatutako profilak izango dituzte eta astero partekatuko dituzte fikziozko istorio, berri, iritzi, erreportai, e.a. "Kaixomaitian Saltsa badago!" baieztapena egiaztatuko da blogean ere, sustatuko diren eduki aktibo, dinamiko eta interaktiboek esker, euskaldun orori gizartearen harremanei buruzko hausnarketa egitera gonbidatuko gaituenak.

#### Euskal Herritarren harreman afektibo eta sexualen inkesta anonimoa

Zoriontsuak al gara ditugun harreman sexual / afektiboek dagokienez? Erlazio irekiak izateko desira dugu? Sexualki aktiboak gara? Zenbateraino eta zergatik gara leialak? Eragina al dute genero, adin edota ideologia bezalako aldagaiek harreman zoriontsuak izateko orduan?

Egun, oraindik, tabu eta erronka anitz estaliak daudela sinetsita, euskal herritarren sexu eta harremanei buruz jakin eta argitara eman nahi dute Kaixomaitiatik. Hori dela eta, internet bidezko inkesta anonimo bat zabalduko kaixomaitia.eus-en eta honen sare sozialen bidez. Aztiker Ikergunearen aholkularitzarekin osatu da eta hiru hizkuntzetan (euskara, gaztelera eta frantsesa) egongo da eskuragarri Kaixomaitiaren inkesta hurrengo astetik aurrera otsaila bitarte. Helburua da denbora horretan erantzun kopuru altua izatea (1.500-2.000), balio zientifikoa emango diona eta errealitatearen interpretazio sakon eta zintzoa egiteko aukera emango duena. Azterketaren emaitzak otsaila erdialdera zabalduko dira.



**Lagunasesoria S.L.**

Fiskala  
Laborala  
Kontabilitatea  
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232  
[lagunasesoria@terra.es](mailto:lagunasesoria@terra.es)

SAN MIGUEL  
gasolindegia



Xabier Garmendia 629 350 099  
Arribe-Atallu

German Lasarte



ARREONDO  
HARATEGIA

Aralar kalea 9  
Lekunberri  
948504157

OKM

ABOKATUAK

Eukeni Celaya Zubieta · Mikel Iraola Sarasua

Arretxea, 1º, Alii. Tfnoa: 609 130 555

## *Betelun uholde arriskuan dauden zortzi gune zehaztu ditu Udalak*

*2011ean Kantabriako Konfederazioa Hidrografikoak Betelu uholde arrisku potentzialeko guneen zerrendan sartu zuen. Azkeneko urteotan egoeraz arduraturik Beteluko Udalak Araxes Errekari buruzko ikerlan hidraulikoa egiteko eskatu zuen Udal Hirigintza Egitasmoaren erredakzioan aintzat hartzeko.*

Joan den azaroan, Beteluko India-noetxean, aurkeztu zen jendaurrean ikerketa horren emaitza.

VS INGENIERÍA Y URBANISMO S.L. enpresa arduratu da azterlana egiteaz. Horretarako IBER kalkulu programa erabili dute, Kantabriako Konfederazio Hidrografikoak bildutako datuak bertan txertatuz.

Konfederazioak emandako ereduak oinarri izanda Beteluko herrigunean (hemendik 10, 100 eta 500 urtera) uholde arriskuan egon daitezkeen eremuak hobetzeko neurriak zehaztea da ikerlan horren helburu nagusia. Baita neurri horien bideragarritasuna aztertzea ere eta teknikoki, ekonomikoki eta ingurumenaren aldetik bideragarriak izan daitezkeen irtenbideak aurkitzea.

Aurkezpenean zortzi arrisku gune zehaztu zituzten:

- 1- NA-1300 errepideko ur-isurketak.
- 2- Betelu Urak lantegiko galeria eta ingurua (Ipintza Ubidearen elkargunean)
- 3- Wisco lantegiko presaren ingurua
- 4- Wisco lantegiko eremua
- 5- Oinezkoentzako pasabidea eta Lakobeikoa taldea.
- 6- Lakobeikoa eta udaletxearen arteko eremua
- 7- Udaletxearen eta Apeztegi-Zarra etxearen arteko eremua
- 8- Azken zatia.

Horietatik lau dira ikerketan lehenetsi diren eremuak:

NA-1300 errepideko eta Irigoien kaleko



ur-isurketen ondorioz zenbait etxe azpi urez beteko lirateke. Horri irtenbidea emateko euri-sare bat diseinatu beharko litzateke euri ura behar bezala biltzeko.


Ipintza ubidearen ezker aldeko etxebizitzetan kalteak saihesteko aldiz, hamar metroko zabalera duen eta metro bateko altuera duen tarte bat egin beharko litzateke ibilgutik hasi eta Lakobeikoa taldeko bihurtzeraino, beti ere lantegiko presa errespetatuz. Horrez gain, Wisco lantegiko pasabidea eta bertako eraikin eta baratzeak bota beharko lirateke.





Ipintza Ubideko elkargune hori hobetzeko diametro handiko hodi bat jartzea eta ubideko irteera irekitzea aurreikusten da ura behar bezala bide-ratzeko.

Bestetik Lakobeikoatik udaletxeko pasabideraino pareta bat eraiki beharko litzateke. Eta Intza aldeko zubi inguruko arriskua murrizteko udaletxeko pasabidea kendu, ezkeraldeko zelaia zulatu eta zubi-brakak ireki beharko lirateke besteak beste.



*Lagundu Mailope!*

Mailopeko bazkidea izan nahi duzu?  
mailope@labrit.net

**ekin**  
rotulación

**GARAIZ** Zure behar eta ordutegira moldatuko gara

Mate erdi eta goi zikloetarako prestaketa

Fisika, Inglesa, lengua, kimika, euskera, historia

marrazketa teknikoak

948 504 450  
648253522

ETORRI ETA INFORMAZIO ZAITEZ!!!

AUTOZERBITZUA · ARRAINDEGIA · HARATEGIA ·

**PATXI GALARZA**

Astelehenetik larunbatera  
8:00 - 14:00, 17:00 - 20:00

Igande eta jaiegunetan  
8:00 - 14:00

Irurtzun

**SAN MIGUEL**

Taberna-Jatetxea

Arribe

948 51 31 34

**INFORMATIKA BETELU**

- ordenagailuen salmenta eta konpontzea
- sareen instalazioa eta konfigurazioa

634 551 743  
informatika.betelu@gmail.com

**CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.**

HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:  
948 50 43 31

Lekunberri

## “Foto-depilazioa egun dagoen depilazio sistemarik eraginkorrena da”

*Duela 17 urte hasi zen gorputz estetika eta edertasunarekin lotura duen lanbidean. Oso gazte zela, lekunberriarrak bere zentroa ireki zuen herrian eta azken hilabeteetan erabaki ausarta hartu du Edurne Errok; foto-depilazioa eskaintzea, hain zuzen.*



### **Zergatik egiten du geroz eta jende gehiagok metodo honen alde?**

Depilazio sistema hau gaur egun dagoen hoberena eta eraginkorrena delako.

### **Foto-depilazioa aukeratuz gero, zein da prozedura?**

Bezeroaren behaketa zehatza eta fitxa bat egiten da. Baimen informatua sinatu behar izaten da, eta ondoren, foto-sentsibilitate froga egiten da eta erreakziorik ez dagoela ikusi ondoren, depilatu egiten da.

### **Hala ere, aurretik zenituen zerbitzuak eskaintzen jarraitzen duzu?**

Bai, noski. Manikura eta pedikurak, esmalte iraunkorrak, makillajeak, betileak kizkurtzeko eta tindatzeko tratamendua, aurpegiko eta gorputzeko azal garbiketak, aurpegiko eta gorputzeko tratamendua (foto-gaztetzea, orbanak, erradiofrekuentzia, kabitazioa, diodo laser lipolitikoa eta presoterapia), masaje estetiko eta lasaigarriak, eskuz egindako drainatze linfatikoa...

Eta orain arte hitz egin duguna, hau da: depilazioak. Argizari epelarekin eta beroarekin eta foto-depilazioarekin, hain zuzen ere.

### **Noiz edo zergatik erabaki zenuen zerbitzu hau eskaintzea?**

Aspalditik nuen buruan. Hasieran beste enpresa bati esateko asmoa nuen, beraien foto-depilazio ekipoarekin nire kabinan hilero bitan lan egiteko, baina hemendik aurrera depilazio sistema hau gero eta gehiago egingo denez, eta estetika kabina batean eduki behar den zerbitzua denez, animatu eta neure ekipoa erostea erabaki dut.

### **Zein dira eskaintzen dituzun depilatze-ko metodoak?**

Argizari beroa, argizari epela eta orain foto-depilazioa.

### **Ba al du albo-ondoriorik?**

Foto-depilazioa egin aurretik, azterketa sakon bat egiten zaio bezeroari. Baita foto-sentsibilitate proba bat ere eta eman beharreko pauso guztiak errespetatzen badira, ez du inongo ondoriorik izan beharrik.

### **Beti entzun izan dugu laserrarekin depilatuz gero eguzkia ez dela gomenda-**

### **garria. Egia al da hori?**

Bai. Hau da seriooki errespetatu behar den alderdietako bat. Foto-depilazio saioaren aurretik, bi aste lehenago ezin da eguzkirik hartu eta saioaren ondoren ere beste bi aste itxaron behar dira eguzkia hartu aurretik.

### **Bezeroari begira, adin zehatzik gomendatzen duzu?**

Ez, hemen denek, gazteek zein helduek egin dezakete foto-depilazioa.

Eskatu zure ordua: 678.23.95.04  
Aralar, 61 \* 1Dcha \* Lekunberri



agenda

## ilbeltza

**17** Araitz-Beteluko Herriarteko Krosa. Haurren probak 10:30etan hasiko dira eta proba nagusia berriz 12:00etan.

**24** Lekunberri: Zweekere taldearen kontzertua arratsaldeko 19:00etan Kantinan. Mailoperen alde!!

**30** Lekunberri: Herriko inauteriak!!

## otsaila

**4** Santa Ageda bezpera.

**19** Lekunberri: Ane Vitoria, Iortia Hartz Klinikako odontopediatria aholkulariak eskaintako hitzaldia Ibarberri eskolan.

## merkatu txikia

### ALOKAIRUAN

- Pisua alokatzen da Betelun, 300 € hileko: Altzariz hornitua, berogailua, 3 gela, sukaldea, komuna eta 2 egongela. (606 375 855).

- Pisua alokatzen da Betelun. 80m2-ko pisua altzariz hornitua. Telefono zenbakia: 690 006 283 (Mila).

### SALGAI

- VPO pisua salgai Atallun. Bizitzera sartzeko prest. 90 m2ko bizitza, garajea eta trasteroa. 115.000€. 646179746 (Miren).

### LAN BILA

- Lekunberrin emakume bat prest edozein lanetan aritzeko: etxeko lanak, pertsonen zainketa, etxebizitzaren garbiketa etab.

Emilia Dimitrova:  
948 60 48 93 / 679 053 368.

### LAN ESKAINTZA

- Adineko bi pertsona zaintzeko emakumezko bat behar da Errazkinen.  
948 50 43 62.

### ADI!

Merkatu Txikian iragarki bat jarri nahi baduzu idatzi mailope@labrit.net-era. Publizitate eskariak bi hilabetez egongo dira jarrita, ondoren kontrako abisurik jasotzen ez badugu kendu egingo ditugu.

# URTE BERRI ON !



**SASTRAKA**  
auto 4x4

**Ibilgailuen Mekanika Orokorra**  
(azterketak, gurpilak, olio aldaketak,...)

**Baita Todoterrenoetan Espezializatua ere**  
(prestakuntzak, homologazioak, erreformak,...)

Industrialdea, 9 31870 Lekunberri 948.60.48.06 Inigo  
www.sastraka4x4.com

M. Angeles Urrizalki  
iragarkiak, berriak, eskelak...

**Diario Vasco eta Diario de Navarrako Korrespontsala**

948513056  
699179437



**aitzberri**

edertasun zentroa

Lako beikoa  
Betelu 31890  
948 513 083  
696 732 290  
aitzberri@hotmail.com



